

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB)
ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO
DITUEN SOZIETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018.**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den apirilaren 19an Euskal Irrati Telebista (Eitb) Zuzenbide Privatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldiari dagokiona.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

Txostenak ondorioztatu du Erakundeak eta mendeko sozietateek **zuzentasunez bete dutela** 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen **lege araudia**; salbuespen da Eitb taldeko aldi baterako 35 langileren kontratuak kontratu mugagabe bihurtu izana.